2023-2024 SEASKAKO NORABIDEAK

1. Sarhitza

Azken urteetako borrokari esker, Brebeta berriz ere ~~osoki~~ **(LOT)** euskaraz izan dadin lortu dugu azkenean. Biba zuek, ikasle, buraso, irakasle, langile eta euskaltzale guzien mobilizazioari esker lortu dugu! Ondoko urratsa, Baxoa ere euskaraz izan dadin erdietsi behar dugu.

Euskal Herria euskaraz mintza dadin ezinbesteko urratsa da, euskara lau haizetara zabaltzea. Gure ikasleek bizitza osoan euskaraz ikasi eta gero azterketak frantsesez egitea, euskara azpiratzea da, euskara baliogabetzat kontsideratzea da.

Baxoa biziki inportanta den azterketa da, unibertsitate edo goi ikasketetarako sarrera baita. Gure lizeoak emaitza paregabeak lortzen ditu urtero, nahiz froga oro frantsesez izan. Justuki, Baxoa inportanta baita, euskarak toki osoa ukan behar du azterketa horretan. Hezkunde ministeritzak sinetsarazi nahi liguke Baxoa munduko hizkuntza guzietan egin daitekeela, euskaraz salbu… Alta, Bidasoaz bestaldean euskaraz egiten dute selektibitatea, eta horrek ez du arazorik sortzen, ez eta frantses unibertsitateetan sartzeko ere. Euskara irakaskuntzako hizkuntza gisa onartua izatea lortu genuen orain dela 30 urte, orain azterketa oro euskaraz egiteko eskubidea errespetarazi behar dugu.

Azken inkesta soziolinguistikoaren emaitzak ikusirik, gure hizkuntza biziarazteko, hizkuntza politika publikoaren ziklo aldaketa bat eman behar da Ipar Euskal Herrian. Dagoeneko politika minimalistek ez dute balio. 2023-2024 ikasturtean Euskal Elkargoa, Departamendua, Akitania Berria eta Estatuarekin Euskararen aldeko hitzarmen berri bat egiteko urratsak emanen ditugu. Herriko etxeetan ere euskara presentago izan dadin lan egin beharko dugu Euskararik gabe, ez baita Euskal Herririk izanen.

Hizkuntza eta Hezkuntza, horra Seaskaren bi zutabeak. Iaz abiatu 1994ko Hezkuntza proiektuaren eguneratzean urrats berriak emanen ditugu ikasturte berrian, Seaskaren hezkuntza helburuak finkatu eta helburu horietara heltzeko bideak zehaztuz, Hezkuntza Kontseiluaren bitartez, eta ikastoletako Hezkuntza Taldeen elkarlanaz.

Azken urteetako gatazkaren ondoren, Beskoitzen ikastola bizirik atxikitzeko aterabidea proposatu dugu, ikastola berria eraikitzea gure gain hartuz. Espero dugu Herriko etxea

aukeraz baliatuko dela aterabide duina emateko. Zer gerta ere, gaia hurbiletik segitu beharko dugu eta ahalegin guziak eginen ditugu Beskoitzeko ikastola bizi dadin (Beskoitze).

2. Proiektuak

Senpereko kolegioa

2023 urteko irailean Senperen Kattalin Elizalde kolegioa idekiko dugu, Seaskako 39. ikastola. 81 ikaslerekin hasiko da, 6.eko bi gela eta 5.eko beste bi gelarekin, eta Inklusiorako Egitura Pedagogikoarekin. Lanak ziztu bizian hasi ziren urtarrilean eta lehen zatia irailean bururatuko da ikasleei harrera egiteko gisan, eta bigarren zatia 2024ko urtarrileko.

Lizeoko etorkizuna

Lizeoan ikasleen kopuruak goiti buruz segitzen du, iragan ikasturtetik 450 ikasleen heina gainditurik.

Ikasturtea bukatzen ari den honetan lizeoaren etorkizunari buruz gogoeta bideratzeko lan talde bat osatu dugu. Aitzin, Lizeoko zuzendaria, Hezkuntza zuzendaria, Seaskan komunikazioaz eta garapenaz arduratzen den langilea eta batzorde eragileko hiru kidez osaturiko talde batek datu eta zenbaki ezberdinak zerrendatu eta horien sintesia landu du.

Lehenik, Ipar Euskal Herriko ikasle kopuruaren bilakaera eta orientazio hautuak aztertu dira lizeoz lizeo. Aldiberean, Seaskako kolegioetan hirugarreneko ikasleek iaz egin orientazio hautuak aztertu dira, eta Etxepare lizeoko ikasleei eta gurasoei galdetegi bat bideratu zaie. Aurten hirugarrenean ditugun ikasleekin azterketa beretsua eginen da ekainean zehar molde zehatzagoan. Gure ikastoletako urtez urteko ikasle kopuruak ere aztertu dira eta horren araberako proiekzioak egin.

Datu objektibo horietan bermatuz Lizeoaren geroaz gogoetatzeko lan taldeak formakuntza eskaintza zabaltzeaz eta orohar lizeoaren garapenaz hipotesia ezberdinak zehaztu eta proposatuko ditu, ondotik Ikastolen Kontseiluak trenkatu dezan.

Haurtzaindegiak

Euskaraz murgiltzean ariko diren haurtzaindegi eta haurtzain etxeen garapena landu beharreko gaia ukanen dugu ere.

3. Euskara

3.1: Legea

Sar hitzan aipatu bezala, euskararendako aro berri bat landuko dugu ikasturte berrian. Euskalgintzak beharrezkoak dituen baliabideak eskuratzeaz gain, Hizkuntza politika eraginkorra izateko, euskaldunon hizkuntza eskubideak errespetatuko dituen kuadro berri bat behar dugu. Bestalde, ikastolek inbertsioetarako dirulaguntza publikoak eskura ditzaten legea aldatzeko ahaleginean segituko dugu.

Frantses estatu mailan, izan dadin Eskolim edo Pour Que Vivent Nos Langues kolektiboekin, lege aldaketez gain, Konstituzio aldaketa bat ere galdeginen dugu.

3.2: Euskara plana

- **Ikasgeletan**

Seaskaren hezkuntza proiektuan hizkuntza eta hezkuntza elgarri josiak dira, batak bestea indartzen baitu, batak bestea elikatzen baitu. Euskaraz irakasten dugun heinean, ikasleak irakasgai bakoitzari dagokion ezagutza sakonean bidea egin dezan euskarazko gaitasuna segurtatzea beharrezkoa zaigu.

Inkesta soziolinguistikoaren emaitzek agerian utzi dute euskarari dagokion hizkuntza gaitasunak eta erabilerak elkar eragiten dutela. Ikasgelaz eta ikastolaz kanpoko eremuetan eragitea ezinbestekoa zaigu euskarak oinarrizko funtzio sozialak berreskura ditzan, baina hizkuntza gaitasunean aurrera egiteko ikasgeletako esku-hartzea lantzen jarraitu behar dugu.

Seaskaren hizkuntza proiektuak euskarazko gaitasuna, erabilera eta euskal hiztun komunitatearekiko atxikimendua elikatzea du helburu, haur hezkuntzatik hasiz lizeoraino. Heldu den ikasturtean lehen mailan ahozko frogak lantzen eta hobetzen segitzea dugu xede, euskararen ezagutzaren bilakaera neurtzea ezinbestekoa baizaigu ikasgeletan egin beharreko lana doitzeko, hobetzeko. Zentzu horretan, aurten ahozkotasuna lantzearekin batean, haur eta gazte literaturari dagokion proiektu bat landu dugu ikastola ezberdinetan.

Bestalde, ikasturte honetan lizeoko euskara irakasleek euskara irakasgaiaren programa eta progresioa landu dute. Lan horretarako irakasleek orenak libratu ahal izan dituzte. Heldu den urtean lizeoan berezitasunen eta sail profesionalaren programa bururatzea dute helburu. **Hori egiteko lan denboraren zati bat libratuko zaie bi irakasleri. (LOT)** Ildo beretik, 2023-2024

ikasturtean ariketa abiatuko dugu kolegioetako euskara irakasleekin, horietariko bik lan denboraren parte bat libratzeko aukera izanen dutelarik seigarrenetik hirugarrenera bitartean euskara irakasgaiaren programa eta progresioa zehazteko.

Azkenik, hirugarrenean Brebetari euskara hizkuntza azterketa bat eransteko helburua ezarri dugu. Hizkuntza azterketak hizkuntza maila eta ikasleek kolegioan euskara irakasgaiaren progresioan jasoko dituzten ezagutzak neurtzea izanen du helburu. Heldu den urteari begira, soilik hizkuntza maila neurtzeko erronkari lotuko gatzaizkio, B2 maila frogatzeko azterketa bat proposatuz. Kolegioko programaren progesioa zehazten eta adosten joan arau, azterketaren bigarren atala bideratuko dugu.

- **Kanpo espazioan**

Luzaz hezkuntza xedeak garatzeko lehentasunezko eremua ikasgela izan da. Bizijolas proiektuaren baitan eman diren urratsek eta ikastoletarik jaso ditugun oihartzunek erakutsi digute kanpo espazioa erabakigarria dela hezkuntza eta hizkuntza proiektuak osotasunean gauzatzeko, eta bereziki euskararen erabilera sustatzeko elkarbizitzaren balioak lantzearekin batean.

Ildo beretik, Bizijolasek Ortzaizeko ikastolarekin kanpo espazioa eraldatzeko ereman duen proiektuak norabide bat agerrarazi dauku. 2022-2023 ikasturtean, bizijolaseko kideak bi ikastolatan proiektu berdina gorpuzten aritu dira, eta aldiberean, beste lau ikastolatan kanpo espazioan sustapen praktika berriak gauzatzeko proiektua abiatu dute, 2023-2024 ikasturtean luzatuko dena. Heldu den ikasturtean kanpo espazioaren berrantolaketa xedea ikastola berrietara hedatuko dugu. Proiektuan parte hartzeko deialdiak ekaina/uztailan luzatuko dira ikastoletara.

Bestalde, 2023-2024 ikasturtean lehen mailatik bigarren mailara jauzi eginen dugu, Senpereko kolegio berrian kanpo espazioaren inguruko hausnarketa bat abiatuz eta ikasleekin eskuz-esku praktika berriak sustatuz.

Kanpo espazioa hezkuntza eta hizkuntza erronkak garatzeko eremu bezala aintzat hartzeak bertan parte hartzen duten hezkuntza komunitatearen eragile ezberdinen (irakasle, langile, guraso ikasle) formakuntzan sakontzera garamatza. Indar berezi bat eginen da ikastoletako langileei formakuntza berriak proposatzeko.

- **Burasoak euskaldundu**

Azken urteetan bezala, AEKrekin buraso orori euskaraz ikasteko ahala emanen zaio, formakuntzarako eskubiderik ez duten burasoei, euskarazko formakuntzaren ordainketan lagunduz. Gisa berean tailerrak antolatuko dira burasoekin, Euskaraz Bizi taldeen bitartez eta euskara teknikarien laguntzaz.

4. Hezkuntza

4.1 : Hezkuntza Proiektua

2021-2022 ikasturtean Hezkuntza Kontseiluan eta ikastoletako Hezkuntza taldeetan Seaskaren hezkuntza proiektuaren balioak eta ezaugarriak zehaztu eta taula batean bildu genituen. Oinarri hortarik abiatuz, 2022-2023 ikasturtean ikasleengan eta ikasgeletan lortu nahi genituzkeen helburuak zehazten hasi gira lehen eta bigarren mailako irakasleekin lehenik, eta Hezkuntza kontseiluan ondotik.

2023-2024 ikasturtean ikasgeletan eta ikastetxeetan talde pedagogikoek gauzatzen dituzten proiektuak biltzen segituko dugu, hezkuntza proiektuaren baitan finkatu ditugun norabideekin eta lortu nahi genituzkeen helburuekin lotura egiteko. Lehen denbora batean ikastetxeetan jada egiten dena agerian ezarri eta ikastetxeen artean gauzatzen dituzten esperientzia onak elkartrukatzeari eman nahi diogu lehentasuna, bigarren denbora batean xede eta proiektu berriak proposatu aitzin.

Bestalde, Hezkuntza Kontseiluan Hezkuntza proiektuaren ardatz ezberdinak sakontzen jarraituko dugu, egungo erronkei baldintzarik hoberenean aurre egiteko. Gai ezberdinen artean hezkuntzan numerikoak izan behar duen lekuaz gogoetatuko dugu, baita egun eskolatik kanpo nagusi diren sare sozialek eta gailu numerikoek ikasleen egoera emozional eta garapen kognitiboan dituzten eraginetaz ere.

4.2 : Inklusioa

Inklusioa bere osotasunean bermatzea da ikastolek eta Seaskak duten erronketarik bat. Helburua haurren desberdintasuna eta aniztasuna aintzat hartzea izan behar da, ikastolan haur guztiek beren lekua ukan dezaten ahal bezain luzaz eta ahalik eta baldintza hoberenetan.

Inklusioaren eta irisgarritasunaren erronka osotasunean hartu behar dugu. Arreta ez dugu ezarri behar soilik MDPH notifikazioak dituzten haurrengan. Ikusmira aldatzea eta zabaltzea proposatzen dugu, pedagogia hobekuntzak lehenetsiz eta araberako antolaketa berri bat

osatuz. Funtsean Seaskan ardatz dugun pedagogia ezberdinduaren norabidean sakontzeaz ari gara, horretarako irakasleei eta laguntzaileei beharrezkoa den formakuntza proposatuz eta esku-hartze eredua aldatuz.

Soilik pedagogia hobekuntzak nahikoak ez diren egoeratan heziketa esku-hartzeak bideratuko dira, besteak beste ikasgela barnean laguntzailearen presentzia segurtatuz. ~~**Beti azken errekurtsoa izan beharko da, beste aukerarik ikusten ez denean.**~~ **(LOT)** Laguntzailearen esku-hartzea beharrezkoa den egoeratan, pedagogia hobekuntzen dinamikaren baitan gauzatu beharko da, irakaslearekin eta talde pedagogikoarekin elkarrekintzan.

Urte oso bateko gogoeta ereman ondoan antolaketa berria zehazten hasiak gira horretarako baliabide berriak bideratuz. Gogoeta eta antolaketa berriaren plantan ezartzeko lana Integrazio Batzordearekin eskuz-esku bideratu dugu. Antolaketa berriaren bizkar hezurra irakasle berezituek osatuko lukete, kolegio eskola kartaren arabera bana izendatuko genituzkeelarik (4 irakasle berezitu epe ertainera) bertan kokatuak diren ikastoletan esku-hartzeko.

Orain arte indarrean izan dugun antolaketatik berrirako trantsizioa irakasle berezitu izateko bi urtekoa izango dela aitzinikusten dugu. Beti ere, irakasle berezitu izateko hautagaitzen araberakoa izanen da.

Irakasle berezituei CAPPEI azterketa prestatzea galdetuko diegu eta irakaslego guztiari azterketa bera prestatzeko aukera emanen diegu. Aldiberean, formakuntza jarraikiaren baitan inklusioari, irisgarritasunari eta pedagogia ezberdinduari loturiko proposamenak luzatuko ditugu.

4.3 : Formakuntza

Hezkuntza proiektuan finkaturiko helburuen gauzatzeko bidean lehen eta bigarren mailako formakuntza eskaintza gaurkotzen segituko dugu. Irakasle ordezkoei proposatzen zaien hastapeneko formakuntzarekin batean irakasle guztiei luzatzen zaien formakuntza jarraikiaren eskaintza indartzeko erronka dugu.

Lehen mailako hastapeneko formakuntzari dagokionez, Baionako eta Bordaleko unibertsitatearekin harremanetan gira Seaskan emaiten dugun formakuntza unibertsitateak proposatzen duen DU (Unibertsitate Diploma) batekin uztartzeko eta gisa horretan irakasle ordezkoei formakuntzaren ziurtagiri akademiko bat proposatzeko.

Bestalde, lehen mailan irakasle izateko master MEEFaren baitan Seaskako formatzaileen esku-hartzea eta orohar Seaskaren beharrei loturiko irizpideak barnebiltzen dituen INSPE, Unibertsitateak, ISLRF eta Seaskaren arteko konbenio berria izenpetuko dugu heldu den

ikasturtean. **Seaskaren baitan gogoetatuko da zer egin konkurtsoaren pasatzeko baldintzak hobetzeko (LOT);**

Bigarren mailako formakuntza beharrak segurtatzeko ordezkoen zurkaizgoa eta segipen lanaz arduratuko diren irakasleak izendatuko ditugu, zurkaizgoari dagokionez irakasgaika eta segipen lanari dagokionez ikastetxeka, ikastetxe bakoitzean foramatzailearekin/formatzaileekin eskuz-esku arituko den irakasle bat izateko gisan.

4.4. : Azterketak euskaraz

Gorago aipatu bezala, Brebeta erdietsi ondoren, Baxoa ere euskaraz izan dadin lortu behar dugu. 2020 urtera arte, Historia-Geografia eta Matematikako azterketak euskaraz pasatzen ahal ziren. Azken hitzarmenean ere, Ahozko Handia parte bat euskaraz izatea adostu genuen, baina Ministeritzak ez zuen hitza bete. 2021 urteko zirkularraren negoziaketetan, Estatuko hizkuntzen Erakunde Publikoek aho batez galdegin zuten Baxoko bi Berezitasunetarik bat bederen euskaraz pasatzeko aukera. Geroztik ez da deus aitzinatu, urratsez urrats lortu beharko dugu.

5. Antolaketa

5.1 : Euskal Herriko Ikastolak : Bihar prozesua

2020 urtean Euskal Herri osoko ikastolen VII. Batzarra abiatu genuen Ikastolen Elkartea eta Euskal Herri osoko ikastolek. Baina pandemiaren ondorioz, bertan behera gelditu zen gogoetaldia eta EAEko hezkuntza legearen eztabaidak ez digu nahi bezala aitzinatzen utzi lan horretan.

Heldu den irailetik goiti berriz lotuko gira lanari eta urri hastapenean, ikastolak eskualdeka bilduko ditugu kolegioen eremuen arabera eginen diren 5 bilkuretan (Baiona, Kanbo, Ziburu, Senpere, Larzabale), ondoko 10 urteetarako Euskal Herri osoko ikastolen plan estrategiko bati gure ekarpenaren egiteko.

Eztabaida prozesua Ikastolen VII. Batzarrarekin bururatuko da 2024ko ekainean.

5.2 : Batzorde Eragilea

Batzorde Eragilea Seaskaren administrazio kontseilua da, eta Ikastolen Kontseiluak hautatzen ditu kideak. Gaur egun 11 ordezkaritik, Langile Ordezkarien Taldeko 2 ordezkaritzak beteak dira (Maite eta Mayi). Burasoen 9 ordezkaritik, aldiz, 7 besterik ez dira izendatuak. Hiru urteren ondoren, Haizea Jimenezek bere tokia utzi du. Ongi litzateke beste 2 ordezkari izendatzea 2023ko irailean hasteko, Lapurdi Ipar edo Barnekaldekoa ahalaz, baina hautagai oro ongi etorria da.

Lapurdi Iparraldea	Lapurdi Hegoaldea	Lapurdi Barnekaldea	Baxe Nafarroa	Xiberoa
-	Peio	Sophie	Zuhaitz	Erik

-	Paxkal	-	Antton	-
	Iurgi			

Seaskaren misioak betetzeko, egitura guzien arteko elkarlana bultzatzeko (ikastolak, Herri Urrats, Egoitzak, Integrazio Batzordea, EHI,…) ezinbestekoa dugu jende berria sar dadin. Borondate ona besterik ez da behar Batzorde Eragileko kide izateko. Bilkurak Euskaraz dira.